



INFORMAZIO ORRIA

HARREMANETARAKO:

- Asteko informazioa Kultur Etxeko panelean egongo da eskuragarri
- Igorrekozaztaludo@gmail.com
- Telefono zenbakia: 688 89 87 65 (Maratu)
- Instagram-a: Zaztaudaigorren

PROGRAMAZIOA:

UZTAILAK 6	UZTAILAK 7	UZTAILAK 8	UZTAILAK 9
ASTEKO ERRONKA		UR JOLASAK	Jolasak + iSelfie GAZTERIA (LH 6 - DBH 4)
UZTAILAK 13	UZTAILAK 14	UZTAILAK 15	UZTAILAK 16
ASTEKO ERRONKA GINKANA IGORRETIK ZEHAR (HH 4 eta 5)	KONTAKATILU	MERENDERURE IRTEERA (LH 1 eta 2)	Zaztaoka + hitz pitz GAZTERIA (LH 6 - DBH 4)
UZTAILAK 20	UZTAILAK 21	UZTAILAK 22	UZTAILAK 23
ASTEKO ERRONKA	SAN KRISTOBALERA IRTEERA (LH 3 eta 4)	ARTISTEN HERRIA	Zer ote??? GAZTERIA (LH 6 - DBH 4)
UZTAILAK 27	UZTAILAK 28	UZTAILAK 29	UZTAILAK 30
ASTEKO ERRONKA	ARANTZAZURE IRTEERA (LH 5 eta 6)	MASKARADA	Azken jaia GAZTERIA (LH 6 - DBH 4)

ESPAZIOA ETA ORDUTEGIA:



Harrera eta agurra udalekuetako landan egingo da.

Umeentzat ekintza gidatuak	Gazteentzat ekintza gidatuak
Uztailak 13, 15, 21 eta 28: 16:00-19:30	Uztailak 9 eta 16: 19:30-22:00 Uztailak 23 eta 30: 21:30-23:00

EKINTZAK:

1. ASTEKO ERRONKA - INGURUA EZAGUTZEN

Aurtengo uda berezia dela eta, parkean jolasteko aukera berriak proposatzen ditugu. Proposamen hauek asteka aurkeztuko dira, herriko hainbat puntu edo gune desberdinetan aurrera eramatekoak. Hau ume bakoitzak lagunekin edo familiarekin egin ahalko du. Asteko ekintzak Kultur Etxeko atean izango den informazio gunean jarriko dira, astelehenero.

Gure lehenengo proposamena “Ingurua ezagutzen” deituko da. Ingurua ezagutzeko hainbat proposamen eskaintzen ditugu. Ekintza honek lau ardatz izango ditu:

- ZAZTA BILATZEN: Herrian zehar zaztaparren logoaren pegatinak jarriko ditugu. Honen helburua hauek bilatzea izango da eta hauekin argazki bat ateratzea.
- AUZORIK AUZO: Astero Igorreko auzune desberdin bat proposatuko dugu eta hori bisitatu beharko da. Auzo horretara heltzean, auzotik gehien gustatutako tokiaren argazki bat atera beharko da.
- BIZIDUNAK: Astero bizidun desberdin batekin argazki bat ateratzea proposatuko da.
- KIROLA: Astero kirol desberdin bat proposatuko dugu eta hau egiten argazki edo bideo bat atera beharko da.

Guzti hau burutzeko, taula bat bete beharko da astero eta taula betetakoan Kultur Etxean jarriko dugun informazio gunean izango den buzoian sartu beharko da. Hona hemen taularen erudia:

INGURUA EZAGUTZEN	
IZENA:	
ZAZTAREN BILA	AUZORIK AUZO
BIZIDUNAK	KIROLA

Agintzen dituzuen argazki eta bideoak, nahi izatekotan, sare sozialetara igoko ditugu Instagram bidez, beraz, zuen argazkiak igotzea ez baduzue nahi, ez bidali. Argazkiak bidaltzeko helbideak hurrengoak dira:



- Telefonoa: 688898765
- Helbide elektronikoa: igorrekozaztaludo@gmail.com

OHARRA: Ez da derrigorrezkoa bideo eta argazkiak bidaltzea. Buzoian taula sartzearekin nahikoa izango da.

2. ASTEKO PROPOSAMENA - HAURRAK KALEAN

Proposamen honen egitura desberdina izango da. Hala ere, aurrekoa bezala asteka burutuko da. Aste bakoitzean ekintza bat proposatuko dugu eta hau ume bakoitzak lagunekin edo familiarekin egin ahalko du. Asteko ekintzak Kultur Etxeko atean izango den informazio gunean jarriko dira, astelehenero. Ekintzak hurrengo hauek izango dira:

- **Ur jolasak:** Ur jolas desberdinak proposatuko dira, hauetara jolasteko beharrezkoa den, material eta azalpen guztiekin. Jolas hauek egiteko lekuak ere proposatuko dira.
- **Kontakatu:** Bakoitzak barruan dituen emozio eta sentipenak askatasun osoz adierazteko aukera ezin hobea izango da aste honetakoa. Norberak aukeratuko du hori egiteko modurik honena, txiste, ipuin, bizipen, olerki, bertso, gutunak eta bururatzen den beste edozein modu.
- **Artisten herria:** Aste honetan umeen artista grina plazaratuko dugu. Horretarako, umeek egiten dituzten artelan desberdinak herriko hainbat tokitan aurkeztera animatuko ditugu. Artelan hauek, konfinamentu honetan guztion ongizatea bermatzeko lan egin dutenei esker ona adierazteko izango dira. Horretarako, artelanak lanpostu edo toki esanguratsuen inguruan jarriko dira.
- **Maskarada:** Aste honetan etxean ditugun edo sortuko ditugun mozorroak aterako ditugu kalera.

OHARRA: Egiten duzuen ekintzen argazki edo bideoak bidaltzeko aukera izango duzue, aurretik jarritako helbideetara bidaliz.

3. UMEENTZAT EKINTZA GIDATUAK

*Ekintza hauetan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da matrikulazio orria eta dagozkion baimenak sinatuta izatea.

- Uztailak 13: HH 4 eta 5 urteko gela. **GINKANA IGORRETIK ZE HAR**
- Uztailak 15: LH 1 eta 2. mailak. **MERENDERURE IRTEERA**
- Uztailak 21: LH 3 eta 4. mailak. **SAN KRISTOBALERA IRTEERA**
- Uztailak 28: LH 5 eta 6. mailak. **ARANTZAZURE IRTEERA**

EGUNERO KONTUTAN HARTZEKO:



- Arropa eta zapatila erosoak jantzita ekartzea.
- Bisera ekartzea.
- Eguzkitako krema etxetik emanda etortzea.
- Jan-edatekoak: Nork bere askaria ekarri beharko du jarduerara, eta ezin izango du beste inorekin partekatuko.
- Maskarila ekarri (ekarri ezean antolakuntzak erraztuko du).
- Motxilan aldatzeko arropa eta toaila bat ekartzea.

4. GAZTEENTZAT EKINTZA GIDATUAK

*Ekintza hauetan parte hartu ahal izateko ezinbestekoa izango da matrikulazio orria eta dagozkion baimenak sinatuta izatea.

- Uztailak 9 eta 16: 19:30-22:00.
- Uztailak 23 eta 30: 21:30-23:00.

OSASUN-EGOERARI BURUZ EGUNERO ETA EZ BERTARATZEAREN ARRAZIOIAZ ALDI ORO JAKINARAZTEKO KONPROMISOA

- Parte-hartzaileek egunero jakinaraziko diote bere taldeko begirale arduradunari osasun-egoera, eskuko telefonoaren edo beste bitartekoren bidez bidez, jarduerara joan aurretik.
- Parte-hartzaileek ez bertaratzearen arrazoia jakinaraziko diote bere taldeko begirale arduradunari, eskuko telefonoaren edo beste bitartekoren bidez bidez.
- Jarduerarekin zerikusia duen pertsonaren batek COVID-19arekin lotutako sintomarik badu, ez da bertaratuko, eta harremanetan jarriko da jardueraren arduradunarekin (gerentea, zuzendaria, begiralea, etab.).

Ez duzu jarduerara bertaratu behar, baldin eta...

- COVID-19 gaitzarekin lotutako sintomaren bat baduzu (eztula, sukarra, arnasa hartzeko zailtasuna, etab.). Sintomaren baduzu, COVID-19aren inguruan zure autonomia-erkidegoan dagoen telefono bidezko arreta-zerbitzuarekin edo zuri dagokizun lehen mailako arretako zentroarekin jarri behar duzu harremanetan, eta haiek emandako jarraibideak bete behar dituzu. Ez duzu jende gehiago dagoen lekuetara joan behar, baieztatzen dizuten arte ez dagoela arriskurik, ez zuretzat eta ez gainerakoentzat. Sintomak izanez gero nola jokatu jakiteko [dekalogo](#)a [kontsultatu](#) [hemen](#).



(https://www.mscbs.gob.es/profesionales/saludPublica/ccayes/alertasActual/nCov-China/documentos/20200325_Decalogo_como_actuar_COVID19.pdf)

- COVID-19 gaitza izan duen pertsona batekin hurbileko kontaktua izan baduzu pertsona horrek sintomak zituen bitartean (bizikideak, familiakoak eta leku berean gutxienez 15 minutuz 2 metroko tartera baino gutxiagora egon diren pertsonak) edo pertsona harekin espazio berean pertsonen arteko distantzia gorde gabe egon bazara. Halakorik gertatuz gero, 14 eguneko jarraipena egin behar duzu, gaixotasunaren zantzuak agertzen diren zaintzeko.
- Parte hartu ahal izango duzu, zure erantzukizunpean, zaugarria bazara edo zaugarria den pertsona batekin bizi bazara; zaugarria izan daiteke adinagatik, haurdun egoteagatik edo lehendik gaitzen bat edukitzeagatik (hala nola hipertentsio arteriala, gaixotasun kardiobaskularrak, diabetesa, biriketako gaixotasun kronikoa, minbizia edo immunoeskasia). Baina hori oso arriskutsua izan daiteke, bai zuretzat eta bai zurekin bizi direnentzat.

Parte-hartzaileek edo haien legezko tutoreek izango dute COVID-19 gaitzarekiko norberaren egoeraren erantzukizuna, COVID-19 gaitzarekin zerikusia duen adierazitako sintomaren bat baldin badu.

Jarduerarako joan-etorriak.

- Ahal duzun guztietan, lehentasuna eman pertsonen arteko 2 metro inguruko distantzia ondoen ziurtatzen duten mugikortasun-aukerei. Horrenbestez, egungo egoeran hobe da banakako garraioa.
- Joan-etorriak oinez, bizikletaz edo motoz egiten badituzu, ez da derrigorrezkoa maskara erabiltzea. Oinez zoazenean, pertsonen arteko distantzia errespetatu, edo maskara jantzi.
- Joan-etorriak autoz egin behar izanez gero, neurri zorrotzak hartu autoa garbitzeko, eta saihestu eserleku-ilara bakoitzeko pertsona batek baino gehiagok bidaiatzea, eta gorde ahalik eta distantzia handiena bidaiarien artean.
- Taxia edo ibilgailu gidariduna hartuz gero, eserleku-ilara bakoitzeko pertsona bakarra eseriko da, eta ahalik eta distantzia handiena gorde behar da bidaiarien artean.
- Garraio publikoan bidaiatuz gero, pertsonen arteko distantzia gorde gainerako bidaiariekiko. Autobus publikoen kasuan, gidariak zainduko du pertsonen arteko distantzia errespetatzen dela. Nahitaez erabili behar da maskara higienikoa, ez-medikoa, garraio publikoan.
- Erabili zure burua babesteko ekipamendua, etxetik ateratzerakoan.



JARDUERA GAUZATZEAN

- **Talde bakoitzeko begirale bat izendatuko da**, taldekideei harrera egiteko eta taldekideak beren legezko tutoreen esku uzteko. Arduradun horrek zainduko du urruntze sozialeko neurriak betetzen direla, eta horrezaz gain, jende-pilaketak eragotziko ditu. Kontrolpean izango ditu jokabideak eta ekipamendu sanitarioak, eta maskara ez duten parte-hartzaileei maskarak banatuko dizkie, osasun-alorreko agintariak emandako gomendioetan (unean-unean indarrean daudenak) adierazita bezala.
- **Begiraleek emango dute osasun-protokoloen berri**. Jardueraren arduradunek zainduko dute jarduera segurua dela; horretarako, osasun-adierazpena egingo dute instalazioetan sartu aurretik, eta ezarritako segurtasun-protokolo eta -neurri guztiak behar bezala beteko dituzte.
- **Jarduerak aire zabalean egitea lehenetsiko da**. Gazteen hezkuntza-aisialdiko jarduerak ezinbestean dakarte parte-hartzaileen arteko kontaktua, baina kontaktu hori murriz daiteke. Horrenbestez, ahal dela, pertsonen artean 2 metroko segurtasun-tartea errespetatuko da. Osasun-alorreko agintariak emandako gomendioetan (unean-unean indarrean daudenak) adierazita bezala erabiliko dira maskarak; nolana ere, bereziki garrantzitsua da leku itxietan erabiltzea, bai eta aire zabalean ere, baldin eta segurtasun-tartea gorde ezin bada.
- Ziurtatutako da jarduera gauzatuko den lekuan eta leku komunetan pertsona guztiek une oro eskuragarri dituztela **ura, xaboa eta eskuak lehertzeko papera**, eta, ezinezkoa bada, gel hidroalkoholikoak edo eskuak garbitzeko Osasun Ministerioak baimendutako eta erregistratuta dauden eragin biruzidako desinfektatzaileak.